

## II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

### BERNEDOKO UDALA

#### Zerga ordenantzak behin betiko onartzea

Udal honek, 2016ko ekainaren 15ean egindako bilkuran, hasierako onarpena eman zion zerbitzuen, kultura eta kirol jardueren eta euskara sustapenaren tasen zerga ordenantzaren eranskina aldatzeko taxututako espedienteari, eta jendaurrean egon den bitartean erreklamaziorik aurkeztu ez denez, behin betiko onartuta geratzen da. Horregatik, 41/1989 Foru Arauak, toki ogasunak arautzen dituenak, 16.4 artikuluan ezarritakoaren ondorioetarako, osorik argitaratzen da, indarrean jar dadin.

#### Zerbitzuen, kultura eta kirol jardueren eta euskara sustapenaren tasen zerga ordenantza

##### I. Xedapen orokorrak

##### 1. artikulua

Udal honek, bat etorri Arabako Lurralde Historikoko toki ogasunak arautzen dituen Foru Arauan aurreikusitakoarekin, ordenantza honen eranskinean ageri diren jardueren tasak ezarri eta exijitzen ditu.

##### 2. artikulua

Ordenantza hau udalerriko lurralde osoan aplikatuko da.

##### II. Zerga gaia

##### 3. artikulua

Zerga gaia da udalak benetan jarduera egitea, bai eskatu zaiolako, bai gizabanakoek egindako ekintzek eta egin gabe utzitakoek zeharka eragin dutelako.

##### III. Subjektu pasiboa

##### 4. artikulua

1. Subjektu pasiboak edo zergak ordaintzen dituzten subjektuak pertsona fisiko eta juridikoak zein Arabako Lurralde Historikoko zergei buruzko Foru Arau Orokorrak 35.3 artikuluan aipatzen dituen entitateak dira, zerbitzuak edo jarduerak eskatzen dituztenean eta horien onurak gozatzen edo eraginak izaten dituztenean.

##### 5. artikulua

Hauek ordaindu beharko dituzte tasak:

a) Jarduera egiteko edo instalazio bat erabiltzeko eskatzen duten pertsonak.

b) Egindako jarduerak edo zerbitzuak gizabanakoek ez badituzte eskatu baina hauek egindako edo ez egindako zerbaitengatik burutu behar izan badira, egindakoa edo ez egindakoa lepora dakiokena.

##### 6. artikulua

Ordenantza honetatik ateratzen diren zerga zorrak, subjektu pasiboarekin batera, tarifak aplikatzeko arauetan aipatzen diren pertsonak ordaindu beharko dituzte.

## IV. Salbuespenak, murrizketak eta hobariak

**7. artikulua**

Salbuespenak eta bestelako zerga onurak aplikatzekoak diren xedapen orokorren arabera emango dira.

## V. Zerga oinarria

**8. artikulua**

Zerbitzua gauzatzen den unitate bakoitza izango da zerga oinarria, eranskinak dioenaren arabera.

## VI. Kuota

**9. artikulua**

1. Zerga kuota izango da, eranskinean ezartzen denaren arabera, zerga oinarriari tarifa bat aplikatuz ateratzen dena, ezarritako kopuru finko bat, edo bi prozedura horiek batera aplikatuz ateratzen dena.

## VII. Sortzapena

**10. artikulua**

1. Ordenantzan araututako jarduerak eta zerbitzuak eskatzen direnean sortuko da tasa ordaindu beharra.

Jarduerak badira, kasuan kasuko tasa parte hartzeko inskripzioa egin edo baietza ematean ordaindu beharko da.

## VIII. Likidazioa eta ordaintzea

**11. artikulua**

Udalak kontzeptu bakoitzarengatik egin beharreko likidazioa egingo du, eta likidatutako kuota banku kontuan edo banku helbideratzez ordaindu beharko da, ordainarazpen bakoitzerako eranskinean dauden arauen arabera.

Jarduerak hiruhilekoak badira, tasa hiruhilekoa hasi baino lehen ordainduko da.

Ordaindutakoan jarduerari uzteak ez du ordaindutakoa berreskuratzeko eskubiderik emango, salbu eta urteko jarduerak hiruhilekoetan egituratzen direnean, beti ere uztea hiruhilekoa hasi baino lehen jakinarazten denean.

**12. artikulua**

Ordenantza honek araututako tasen likidazio, bilketa eta ikuskatzeari, eta zergen arloko arau hausteen kalifikazioari eta zehapenak zehazteari dagokienez, Arabako Lurralde Historikoaren zergen Foru Arau Orokorrean xedatutakoa aplikatuko da.

## IX. Azken xedapena

ALHAOn osorik argitaratu eta hurrengo egunean jarriko dira indarrean ordenantza hau eta bere eranskina.

**ERANSKINA****A) EPIGRAFEA: KULTURA JARDUERAK ETA EUSKARA SUSTATZEKOAK.****1. Ikastaroak eta lantegiak.**

JARDUERAREN MAIZTASUNA	ERROLDATUAK	ERROLDATU GABEAK
Hiruhileko kuota 1 h/astean	17,00	20,00
Hiruhileko kuota 2 h/astean	34,00	40,00
Hiruhileko kuota 3 h/astean	51,00	60,00
Hiruhileko kuota 4 h/astean	68,00	80,00

**2. Udako lantegiak eta jolastokiak**

Jardueran parte hartzen dutenek kostuaren gaineko tasa ordaindu beharko dute:

	ERROLDATUAK	ERROLDATU GABEAK
Kuota 4 aste	60 euro	70 euro

Familia bereko haur batek baino gehiagok (neba-arrebak) parte hartzen badu, bigarren kuantan ehuneko 10eko beherapena aplikatuko da; hirugarrenean eta hortik aurrerakoetan, ehuneko 15ekoa.

Jardueran aldi laburragorako ematen bada izena, asteen proportzioan aplikatuko da tasa, zenbatekoa izango delarik, gutxienez, epigrafe honetan aurreikusitako tasaren ehuneko 50.

**B) EPIGRAFEA: KIROL JARDUERAK****1. Body Pumb, mantentze gimnastika eta bestelakoak:**

JARDUERAREN MAIZTASUNA	ERROLDATUAK	ERROLDATU GABEAK
Hiruhileko kuota 1 h/astean	17,00	20,00
Hiruhileko kuota 2 h/astean	34,00	40,00
Hiruhileko kuota 3 h/astean	50,00	60,00

**2. Aparteko kirol jarduerak (abentura kirola, mendi ibilbideak, elurretako jarduerak...)**

	ERROLDATUAK	ERROLDATU GABEAK
22 urte artekoen kuota	ehuneko 70	ehuneko 100
22 urtetik gorakoen kuota	ehuneko 75	ehuneko 100

**C) EPIGRAFEA: IRTEERAK ETA TXANGOAK.****1. Kultura edo kirol txangoak.**

ERROLDATUAK	ERROLDATU GABEAK
ehuneko 75	ehuneko 100

Dena den, udalbatzak adierazitakoa baino indize txikiagoa jarri ahalko du, norentzako den eta irteera edo txangoaren ezaugarri berezien arabera.

## D) EPIGRAFEA: INSTALAZIOAK ERABILTZEA.

## 1. Ludoteka

JARDUERAREN MAIZTASUNA	ERROLDATUAK	ERROLDATU GABEAK
Urteko kuota	12 euro	12 euro

Tasak ez du barruan hartzen inolako jarduerarik.

## 2. Sarrea kaleko 6.ean dagoen erabilera askotako gela erabiltzea.

— 15 pertsona arte	15 euro
— 15 pertsona baino gehiago	1 euro/pertsona

Gela erabiltzea erroldatuek bakarrik eskatu ahalko dute. Instalazioa erabili aurretik, 25 euroko fidantza jarriko da, lokala, instalazioak eta materiala behar bezala erabiliko direla bermatzeko.

Egoitza udalerrian duten kultura eta kirol elkarteak salbuetsita egongo dira tasa ordaintzetik, baldin eta gela erabiltzen badute eratzeko helburu izan zuten jarduerarako. Era berean, tasa ordaintzetik salbuetsita egongo dira gizarte, kultura edo kirol jardueraren bat antolatzen duten talde edo kolektiboak, baldin eta jende guztiarentzat irekiak eta irabazteko xederik gabeak badira.

## APLIKAZIO ARAUAK:

Honelaxe ordainduko da tasa:

a) Jarduera hasi edo zerbitzua jaso aurretik ordainduko da, zuzenean udal diruzaintzan edo bankuan helbideratzeko baimena emanda.

b) Jarduerak hiruhilekoak badira, tasa hiruhilekoa hasi baino lehen ordainduko da; baja hartzeak ez du ekarriko kuota itzultzeko eskubiderik.

Bernedo, 2016ko irailaren 29a

*Alkatea*

*ANA VILLASANTE RUIZ DE ARCAUTE*